



IGOERAK ETA ZEHARKALDIAK ANDORRAKO MENDIETAN

Juanjo Mujika

JENDE askok pentsatzen du Andorra erosketak egiteko lurraldea dela bereziki. Alde batetik, neurri batean honelaxe da, baina garai bateko "gangarik" ez dago gaur egun Andorran. Bestetik, saltokiz betetako kaleetatik eta eski-estazioetatik ihes eginik, bat baino gehiago harrিতuta geratuko da mendi hauek ezagutzeko: ibar edo haran bikainak, pinu beltz basatiez osatutako baso ederrak, turrusta edo ur-jauzi politak, ur ugaria, aterpe txukunak...



EL presente artículo nos ofrece una interesante serie de cinco ascensiones por el Pirineo andorrano, entre las que se encuentran las cimas más elevadas del principado. Las sencillas descripciones de las caminatas facilitan las referencias necesarias para poder repetir los itinerarios que un

grupo de montañeros del club *Ordiziako mendizaleak* realizó en agosto de 2006. Con la publicación de las descripciones, el autor quiere, además, rendir un modesto homenaje al compañero de andanzas que no pudo compartir con ellos las rutas, a pesar de haber tomado parte activa en los planes.

Andorran aurkikuntza bitxiak ere egin daitezkeen arren, tabako soro batzuk izan ezik, oso nekazaritza urria dago. Mendieta animalia gutxi aurki daiteke. Zozo, bele, sai edo putre, sarrío eta halako gutxi ikusi ditugu. Zergatia ezagutzeko beste ikerketatxo bat egin beharko litzateke. Mendizale gutxi topatu dugu ere, nonbait, 3000 metroko mendirik ez baitago herrialde honetan.

Etnolinguistika alorrean, deigarri egin zaigu 70000 biztanleetatik herena bakarrik dela bertan jaioa. Hegoamerikar etorkin asko dago, baina era berean euskal jatorrikoak, portugaldarrak eta abar ere aurki daitezke. Hala ere, argi dago beharrezko hizkuntza katalana dela. Euskal Herria egoera honekin alderatzen dugunean, konturatzeko gara hemen badugula egitekorik aski...

Aipatzekoa da Andorra kokatuta dagoen ibar estu hauetan eta hiri nagusitik hasita, nolako nahaste-kaosa dagoen etxegintza alorrean. Etxebizitzak garestiak dira, hotelak nonahi aurkitzen ditugu, mendi maldetan garabi ugari topa daiteke eraikin berriak altxatzen... Oreka urbanistikoko zipitzik gabe ari dira lanean, dena zerbitzu sektoreari zuzendurik. Nire iritzian, hauxe da Andorran duen alderik txarrenetakoa.

Hala eta guztiz ere, Andorran Pirinioek, oro har, merezi dute mendizaleon txango bat edo beste. Nik gustura errepikatuko nuke, udaberrian ahal banu, oraindik elurra zeharo urtu gabe dagoenean, edo udazken aldera, urki eta hurritzen hostoak horitzen hasten direnean...


■ PIC DE FONT BLANCA (2904 m)

Igoera-bide eta zeharkaldi bat baino gehiago du Pic del Port de Siguer izenaz ere ezagutzen den mendi honek. Gu Rialb ibarretik igo eta Coma de Varilles-kotik jaitsi ginen. Nire iritzian, Andorran dituen zeharkaldi politenetakoa da.

El Serrat-etik Sorteny-era daraman CG3 errepidea hartu eta Riu de Rialb izeneko atsedentokiraino joan daiteke ibilgailuz. Irteera 1700 metro tara dagoen leku honetatik egin ohi da. Ongi seinalizatutako bide-

■ Planells de Rialbtik: Font Blanca tontorra

tik pinu beltzeko basoa zeharkatuz, Rialb aterpera iristen gara (1995 m, 40 min.). Font Blanca mendia aurrez-aurre dugu. Ondoren, artzain txabola batzuen ingurutik iritsiko gara Portella de Rialb izeneko lepora (2509 m, 2 ordu 30 min.). Gure ezkerrean Pic de Besali dugu (2639 m). Ertzari jarraituz, gehienetan ezkerreko aldeari atxikiz, lepo txiki batera iritsiko gara (2722 m) eta hemendik, ezkerreantz joz, erdietsiko dugu tontorra (2904 m, 3 ordu edo 3 ordu 15 min. gutxi gorabehera). Ikuspegi zabala dago gailurretik.



■ Font Blanca tontorra Planells de Rialb-etik



■ Estanyo ertza Arenes-era: Coma Pedrosa, Roca Entravessada, Pica d'Estats"

Jaitsiera Ordino-ko ibarretik datorren Coma de Varilles-etik egingo dugu. Galtzeko arriskurik ez dago. 2300 metroko kotara iritsita, ezkerrera jo eta aterpe baten ondotik, puntu horiez markatutako bidexka behera iritsiko gara irteera puntura, zeharkaldi polit bat osatuz. Iraupena guztira, 7 ordukoa da atsedanak barne eta 1216 metroko desnibela gainditu behar da.

■ ELS PESSONS (2864 m)

Vall de Madriu izeneko ibar edo haran benetan polita bisitatuko dugu Estany de l'Ilia-tik.

Andorran pistarik edo errepiderik ez duen ibar bakarra da Vall de Madriu eta parke naturala izendatzeko asmotan omen dabilta. XIX. mende erdira arte ikatza egiten zuten hemen eta burdinola edo forja baten aztarnak gelditzen dira ikusgai.

Escaldes nahiz Andorra la Vella-tik Comella-ra daraman errepidean barrena helduko gara Ramio eta Estany de l'Ilia-rako seinaleztapenera (1232 m), errepideak Madriu erreka zeharkatzen duen puntuan, hain zuzen ere. Bertan hasten da ibilaldia.

GR-7tik, gorri eta zuriz markatutako harritzko galtzada batetik (burdinola edo forjeto lanak errazteko egina, nonbait), urki, ezel, hurritz, pinu gorri eta abarrez osatutako basoan gora eginez, Fontverd-eko aterpera iritsiko gara (1873 m, 1 ordu eta 30 min., iturria bertan). Pinu beltzak eta goiordokiak tartekatuz, Madriu erreka ondotik zabalduz doa bidea eta honek inguruko mendien ikuspegiak gozatzeo aukera ematen digu. Hegoaldera Pic de Setut eta Tossa Plana de Lles ditugu begibistan, esate baterako. Honela, Pla de l'Ingla izeneko ordokira iristen gara (2180 m, 3 ordu, erreka ondotik). Ordoki honetan ikusi genituen Andorran hain urriak diren behi talde bakarrak. Riu dels Orris parajea dagoen aterpetik eta Estany de la Bova eskubira utzita, iritsiko gara l'Ilia izeneko aterpera (2485 m, 3 ordu eta 45 min.). Hemendik oso gertu Estany de l'Ilia dago, tamainuz Andorrrako bigarren lakua dena (2510 m, 4 ordu). Aurrez-aurre, Llops (2843 m), Pessons (2864 m), eta Ribuls (2827 m) tontorak ditugu, zenbait gidaliburutan Gargantillar deitzen

dituztenak (mendebaldekoa, zentrala eta ekialdekoa, hurrenez hurren). Hauetako bakar batera igo daiteke, baina hirurak egin nahi izanez gero, zailtasunik gabeko ertz batek lotzen ditu eta ordu edo ordu eta erditan ibil daiteke oso-osorik.

Itzulera Estany Rodó-ra aurrena eta gero igoerako bide berbera jarraituz egin genuen. Iraupena guztira 7 ordu edo 7 ordu eta 30 minutukoa izan daiteke, atsedanak barne, 1630 metroko desnibela gainditurik.


Iradokizun bezala, gomendagarria izan daiteke beste honako itzulera hau: Pessons tontoretik izen bereko lepotik pasatu (2775 m), Ensagents aterpera jaitsi (2425 m) eta Els Cortals d'Encamp-en bukatzea. Zeharkaldi honek arazo bat dauka, alegia, hemen kotxea utzi ez badugu, norbaitek gu jasotzera joan beharko duela.

■ PIC DE L'ESTANYÓ (2915 m)

Vall de Riu-tik igo eta Vall de Montaup-etik jaitzirik, zeharkaldi polita osa daiteke, Andorran egin litezkeen txundigarrienetakoa.


Canillo herritik Ordino-ko lepora daraman errepidea hartu behar da eta Estany Gran de la Vall de Riu nahiz Pic de l'Estanyó-rako seinaleztapena dagoen aparkalekuan utziko dugu kotxea.

Irteera 1790 metroetatik egingo dugu. Hasieran puntu horiz markatutako pista batetik, l'Armiana izeneko txabolak eskubian utzita, pinu beltzez osatutako basoan barrena abiatu eta Vall de Riu-ko erreka




zeharkatuko dugu zubi batetik. Bideak pinudi eta belardien artean eramaten gaitu Vall de Riu-ko aterpera (2165 m, 1 ordu eta 30 min., ura du bertan).

Erreka berriz ere zeharkatu eta markatutako bidexka batetik eskuineko maldan gora eginez, lepo batera aurrena eta gero Estany de la Vall de Riu-ra helduko gara (2534 m,





ARGAZIAK: JUANJO MUIJICA



MAPA: MONDİK

■ **Planell de Setut-etik Tossa Plana de Lles eta Pic Setut**

2 ordu 30 min. edo 3 ordu). Jadanik Pic de l'Estany mendiaren azpian gaude. Estany-etik "fita" batzuk jarraitu eta sigi-saga eginez laster gaude lepoan (2729 m). Eskubian Pic de la Cabaneta eta Serrera ikus ditzakegu. Beste aldera, berriz, azken malda gainditu eta Pic de l'Estanyo tontorra erdietsiko dugu (2915 m, 4 ordu gutxi gorabehera), agian Andorrako begiratokirik zabalena duen tontorra.

Jaitsiera zailtasun gutxi duen hegomende-baldeko ertzetik egingo dugu, markaturiko puntu horiak jarraituz. Nahiz eta gu ertzaren bukaeraraino joan ez, komenigarria da Coll d'Arenes-eraino joatea (2539 m). Lepo honetatik sigi-sagan, Montaup izeneko ibarrean behera jaitsiko gara. Belardien eta txabola batzuen ondotik pasatuta, Ordino-ko lepora daraman errepidea topatuko dugu. Berehalaxe gaude irteera puntuan. Guztira, 7 orduko iraupena izango du ibilbideak, atsedanak barne, eta 1125 metroko desnibela gainditu beharko dugu.

Luzeago egin nahi izanez gero, Pic de la Cabaneta (2862 m), Collada dels Meners (2652 m) eta Pic de la Serrera (2912 m) lotu daitezke, Pla de Sorteny-era jaisteko HRP ibilbidea segiturik. Zeharkaldi honek jendea jasotzeko kotxe bat eskatzen du bukaeran.

■ **PIC DE COMA PEDROSA (2942 m)**

Andorrako mendi garaiena da hau. Irteera Arinsal herritik egingo dugu, herriko kale

nagusitik aurrera egin eta tunela pasatu ondoren, eskubira igoz, 1557 metrotara utzi behar da kotxea. Gorri-zuriz markatuta, GR-11k segitzen duen pista hartu eta baso batean gora turrusta edo ur-jauzi bat gurutzatuko dugu. Kanal batetik Coma Pedrosa aterpera igotzen gara, Andorran zaindaria duen bakarra (2224 m, 1 ordu 45 min.). Izen bereko errekaen ondotik eskubira hartu, oraindik GR-11tik, eta Estany Negre-ra iritsiko gara (2627 m, 3 ordu). Eskubira dagoen pintura horiz eta "fitez" markatutako xenda batek eramango gaitu lepura. Zailtasun gabeko Terregalls de Dalt deituriko ertzean gora iritsiko gara, azkenik, Coma Pedrosa gailurrera (2942 m, 4 ordu gutxi gorabehera). Pirinioko ikuspegi zabalena duen begiratokia da.

Jaitsiera bide beretik egin genuen. Iraupena, atsedanak barne, 8 ordukoa izan zen guztira eta igotako desnibela 1382 m-koa.

Alternatiba gomendagarria izan daiteke jaitsiera Portella de Baiau (2756 m), Pic de Sanfons (2894 m), Portella de Sanfons (2588 m) eta aterpea kateaturik luzatzea. Beste aukera bat Portella de Baiau (2756 m), Refugi Monfort (2509 m), Estanys Forcats lepoa (2743 m), Roca Entravessada (2927 m) edo, tontor honetara igo gabe, Estanys Forcats (2674 m), Pla de l'Estany (2050 m) eta Arinsal izan daiteke. Azken aukera hau luzeagoa da baina goi-mendiko kutsu haundiagoa du.

■ **ESTANY DE CABANA SORDA - PIC DE LA COMA DE VARILLES (2758 m)**

El Tarter-tik Soldeu-ra daraman errepi-dean Pont d'Incles-en hasten den errepi-dean sartu eta ibarrean gora La Baladosara heldu baino lehen utziko dugu kotxea. Ibilbide interesgarria da hau, Andorran aurki daitekeen bakardaderik haundienean. Vall d'Incles Andorrako politena eta basatiena dela esaten da.

Irteera 1818 metrotatik egiten da, seinalezapen baten ondotik abiatzen den bide balizatutik. Berau jarraituz, Pinosa deituriko pinudian gora Cabana Sorda aterpera iritsiko gara (2180 m, 1 ordu). Gure eskubian Juclar, Escobes eta Siscaro mendizerren ikuspegi zoragarria dugu. Gora-

xeago, Estany de Cabana Sorda ondotik pasatuko gara (2295 m, 1 ordu 30 min.). Hemendik gora sigi-sagan, markatutako bidetik Pic de la Coma de Varilles-era helduko gara (2758 m, 3 ordu).

Guk jaitsiera bide beretik egin genuen eta ibilaldiaren iraupena 4 ordu eta 30 minutukoa izan zen guztira, atsedanak barne. 1040 metroko desnibela gainditu genuen. Gomendagarria da HRP bidea jarraituz, Pla de Manegar-etik Pont de Bonavida-ra jaitea, hemendik irteera puntura kilometro eska bat baino ez baitago.

Beste bariante bat egin daiteke, tontorretik mendebaldera izen bereko Portella-ra joanik, HRP bidean behera Coms de Ja aterperaino (2217 m). Honela, Vall de Ransol-go La Coma-ren hondoan dagoen atsedanlekuan bukatuko genuke eguna. Zeharkaldi honek, ibiltariak jasotzeko beste kotxe bat eskatzen du amaierako lekuan. □

INFORMAZIOAK

Andorra 464 m²ko azalera du eta Pirinioetako biztanle-dentsitate handiena duen lurraldea da.

Printzerriko Pirinioko mendietan 26 aterpe aurkitu ahal ditugu, denak zaindaririk gabeak, Coma Pedrosakoa izan ezik.

Bost ibar edo haran nagusi daude, mendi artean ezkatuturik. Gailurren garaierari dagokionaz, 2900 m baino gehiago duten 7 gailur daude, 2800 m baino gehiagoko 32, 2700 m-tik gorako 26, 2600 m baino gehiagoko 17 eta 2500etik gorako 7. Mendien batez besteko garaiera 1996 metrokoa da.

Komenigarria da Espainiako estatuaren eta Andorren arteko Seguritate Sozialeko komenioaz baliatzea, asistentzia medikua eduki ahal izateko.

Gidaliburuak:


Andorra, guía alpina. Editorial Alpina, Granollers, 2002.

FIGUERA, Manel & BROSEL, Alfons, Guía Montañera Andorra, Sua Edizioak, Bilbo, 1998.

Mapak:

Andorra 1:40000, Editorial Alpina, Granollers, 2006.

Cartografia oficial d'Andorra, Mapa topogràfic 1:25000, Conselleria de Serveis Públics, Andorra la Vella, d.g. Tel. 07376/29345.



MAPA: MONDİK